

Roxa

Zabalegi Zubizarreta

Astigarraga, 1959

Astigarraga Aldizkariko idazlea eta Astigar Elkarteko partaidea. Oraindik ere herrigintzan dabilena eta dagoen tokian dagoela aktiboki parte-hartzen duena.

Escritora en Astigarraga Aldizkaria e integrante de Astigar Elkartea. Sigue comprometida con su comunidad y participa activamente allá donde va.

“ Niri iruitzen zait,
behintzat,
gustatzen
zaidala
parte hartzea
nagoen toki
guztietan.



Beti Astigarragan ibili izan naiz. Lehen Donostia zen orduan, momentu hortan, baina, beno, Astigarragako betikoa. Astigarragak, egia esan, ez zeukan ezer. Gogoratzen naiz goiz-goiz hasi ginela joaten Hernanira, 13 urterekin edo horrela autobusa hartu eta zinera eta gero Tilosetan dantzatu... Eta gero jada hasi ginen Oialumen.

Gazte batzuk hasi ziren Astigarraga zerbait egiteko gogoarekin, ze noski, ez zegoen horrela ezer gazteentzako. Hor hasi ginen biltzen eta hasi ginen, ba, denetarik egiten. Jende asko elkartu ginen eta hasi ginen antolatzen, ba, hori, gazteok eskatzen genituen gauzak. Dantza, hasieran guk dantzatzeko eta gero eskola bezala umeekin. Gero Xaguxarrek egiten duen lana, recreativos deitzen geniena. Festak ziren ardatz inportantea ere, zergatik gero kultura

taldea zegoen eta festetan beti erakusketa bat egiten genuen, gai desberdina urtero, eta gero, liburu eta disko azoka.

Ni hor sartuta gehiena kulturen eta gero gau-eskolan AEKn. Nik ere goiz eta arratsalde lana eginda, momentu batean, eguerdian neukan talde bat alfabetatzeko eta gauen ikasle berriak. Adin tarte nahiko handia zegoen, baina lagun kuadrilla egin genuen.

Gero hasi nintzen lanean. Izan zen eskaintza bat; farmaziara joan nintzen egun batean eta eskaini egin zidan: "Ba nik behar dut laguntzaile bat eta hori eta...". Ez zen nire asmoa hor jarraitzekoa baina beno, horrela eskaini zidan eta... Gero gustatu eta lanean ari nintzen bitartean titulua atera nuen. 16 urterekin hasi eta orain jubilatuta arte, bizi osoan hortxe.

Auxiliarrok genuen, daukagu oraindik, elkarte bat, antolatu genituen klase batzuk gauean eta joaten ginen klaseetara. Eta orduan, lanetik atera eta joaten nintzen eta nire senarra geratzen zan bi umeekin. Hor ibili ginen ikasketak egiten.

Nik egin nuen erabat utzi Astigarreko gauzak, haurdun geratu nintzenean. Gau-eskola utzi nuen, dantza utzi nuen; lana eta etxearekin nahikoa nuen momentu horretan. Berriz berreskuratu egin dut bai dantza eta bai aldizkaria. Pixkanaka hasten zara eta, nola inguruan zauden ere, lagunak dira bertan jarraitu dutenak, orduan...

Ni, iruditzen zaidana behintzat da, gustatzen zaidala parte hartzea nagoen toki guztietan. Talde batean baldin bazaude, ez zait gustatzen egotea besteek ematen didatenaren zain.

Eta, agian, gure mentalitatea izan da. Sartu garela hemen eta han, eta han eta gustura. Asko ematen dizu, zuk egiten duzuna lana da, baina asko ematen dizu bueltan. Eta nik hori egin dut, nire ustez, toki guztietan.

Beti gustatu zait hori, parte hartzea eta niri gaur egun, iruditzen zait behintzat, ez naizela sartuko saltsa gehiagotan. Iruditzen zait baina beno, ez dakit!

Siempre he andado por Astigarraga. Antes, en ese momento, era Donosti pero, bueno, de Astigarraga de siempre. Astigarraga, a decir verdad, no tenía nada. Recuerdo que empezamos temprano a ir a Hernani, a los 13 años o así cogíamos el autobús y al cine y luego bailábamos en Tilos... Y luego ya empezamos en Oialume.

Algunos y algunas jóvenes empezaron con ganas de hacer algo en Astigarraga, porque, claro, no había nada de eso para la juventud. Ahí empezamos a reunirnos y empezamos a hacer de todo. Nos juntamos mucha gente y empezamos a organizar las cosas que pedíamos la juventud. La danza, primero para bailar nosotras y luego como escuela con las niñas y los niños. Luego lo que hace Xaguxar, lo que llamábamos recreativos. Las fiestas también eran un eje importante porque luego había un grupo cultural y en las fiestas siempre hacíamos

una exposición, un tema diferente cada año, y luego, una feria de libros y discos.

Yo estaba metida en la cultura y luego en la escuela nocturna en AEK. Yo también, trabajando de mañana y de tarde, tuve un momento, al mediodía tenía un grupo para alfabetizar y por las noches al alumnado nuevo. Había una franja de edad bastante grande, pero hicimos una cuadrilla de amigas y amigos.

Luego empecé a trabajar. Hubo una oferta; un día fui a la farmacia y me la ofreció: "Yo necesito una ayudante y eso y...". No era mi intención seguir ahí, pero bueno, así me lo ofreció... Después me gustó y mientras trabajaba, me saqué el título. Empecé con 16 años y hasta ahora me he jubilado, toda la vida ahí.

Las auxiliares teníamos, todavía tenemos, una sociedad. Organizamos unas clases por la noche e íbamos a las clases. Y entonces salía del trabajo y me iba y mi marido se quedaba con los dos niños. Estuvimos allí estudiando.

Yo dejé por completo las cosas de Astigar cuando me quedé embarazada. Dejé la escuela nocturna, dejé el baile, bastante tenía con el trabajo y la casa en ese momento. He recuperado el baile y la revista. Empiezas poco a poco y, como estás cerca, las personas que han seguido allí son amigas...

A mí, por lo que me parece, me gusta participar en todos los sitios donde estoy. Si estás en un grupo, no me gusta estar esperando lo que me dan las demás personas.

Y quizá ha sido nuestra mentalidad. Que hemos entrado aquí y allí, y allí y a gusto. Te da mucho, lo que haces es trabajo, pero te da mucho de vuelta. Y yo creo que lo he hecho en todos los sitios.

Siempre me ha gustado eso, participar y a mí hoy, por lo menos me parece, que no voy a meterme en más líos. ¡Me parece, pero bueno, no lo sé!

Ikus bideoa
Ver vídeo

